



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	21.251
Zabalera:	41,82 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Iruña (ikus mapa)
Udalerriak:	Aranguren, Pamplona/Iruña (distrito 8)

Nafarroa2000 zonifikazioan Mendillorriko eskualde oinarrizkoa Iruñeko eskualdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Iruñeari dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik aterak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %39,1ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (binge drinking) eta %20,8k kontsumitzen dute tabakoa egunero.

2. Komunitatea eta osasuna

Mendillorriko eskualdea oinarrizkoa 45 urtetik 55era bitarteko aita-amek eta 10 urtetik 25era bitarteko seme-alabek osatua dago. Eskualde hau da Nafarroan biztanle gehien dituenetik, eta, aldiz, txikienetik ditu 14-19 urteko ama duten jaiaberrien tasa (%1,8), muturreko pobrezia arriskuaren tasa (%5,8), zahartzaroko mendekotasun indizea (%9,6) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen etxeen portzentajea (%23,9 emakumezkoetan eta %13,7 gizonezkoetan).

Mendillorrikoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, emakumezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%15,2). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean dago urteko kontrol erregistratua duten diabetiko eta hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%62,0 eta %57,1, hurrenez hurren) eta emakumezko jaiaberrien bizi itxaropenari dagokionez (85,1 urte).

3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonen, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor		
Factore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	183	8,9	9,4	3,7		27,0	
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	9	1,8	5,4	16,7		0,0	
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	1.429	8,2	9,2	15,7		6,7	
	4. Langabezia tasa #	2016	-	12,8	12,5	14,5		7,9	
	5. Muturreko pobrezia arriskuaren tasa	2015	-	5,8	8,8	16,6		4,7	
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	1.489	9,6	29,5	63,9		2,7	
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	23,9	39,0	49,1		15,8	
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	13,7	19,1	35,1		10,3	
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	120	57,5	61,2	44,4		80,0	
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	142	19,2	20,2	27,5		16,0	
	11. Alkoholarekin kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	332	39,1	37,8	45,1		28,2	
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	179	20,8	22,6	28,4		19,6	
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	141	19,2	20,5	25,0		19,2	
	14. Antsiolitikoaren eta antidepresiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	1299	15,2 *	17,7	21,9		11,7	
	15. Antsiolitikoaren eta antidepresiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	621	8,3	8,6	12,5		7,3	
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	51	4,2	4,3	8,7		2,0	
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	691	6,5 *	7,1	9,0		4,6	
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	431	62 *	67,8	47,4		94,2	
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	1.052	57,1 *	65,4	49,9		90,7	
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	85,1	86,2	83,6		87,6	
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	80,0	80,1	78,0		84,1	



Adierazleen iturria: 1-2: Bizit. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizit. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Iruñeko eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. gradu ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia atalasetik behara egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 11,8 eta gizonezkoak 5,8); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 4,3); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaen neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.